



LIBURUA

Ustekabeko istorio hunkigarria



HARTZ ZAHARRAREN SEKRETUA

PEDRO MAÑAS

PAMIELA-KALANDRAKA, 2019
IRUDIAK: ZUZANNA CELEJ
ITZULTZAILEA: MANU LOPEZ GASENI

XABIER ETXANIZ ERLE

Album honek sorpresa asko gordetzen ditu bere barnean. Horixe da irakurri ondoren burura etorri zaidan lehendabiziko ideia. Kanpotik begiratuta, edizioa, izenburua, bilduma, horiek denak ikusita, liburu goxo, haur txikientzat hain erakargarriak diren hartzen istorio horietako bat espero daiteke.

Lehen orritik bertatik, baina, konturatu gara album hau “ezberdina” dela. Testuak baduela poetikotasun ikaragarria, baduela irakurlea harrapatzeko gaitasuna: “Txinako tinta-orban bat kaier zuria- ren gainean bezala. Halaxe erori da Bele Andrearen itzala basoaren gainean”. Eta testuak dioena ilustratzeko dagoen irudia zerutik begiratuta bele baten itzala baso elurtuan... Kolore gutxi, paraje elurtuetako zuri ezberdinen konbinaketa, enbor bakar batzuen marroi argia eta belearen itzal beltza. Akwarelaz eginiko irudi ederra!

Istorioa ere bitxia da, Bele Andreak lurrean dagoen oin-arrastoen bidezidorrari jarraika Hartz Zaharrarengana eramango gaitu, eta animalia bien arteko elkarrizketak istorioaren nondik norakoa bideratzen lagunduko digu, Bele Andreak goiz esnatu dela esaten baitio Hartz Zaharrari, honek, orduan, zerbaitek galarazten diola loa, sekretu batek. Saiatuko dira animalia biak sekretua zein den aurkitzen –“edozer emango nuke neure sekretua aurkitzearen” esaten digu Hartz Zaharrak une batean–, eta azkenean, lore baten lurrunik sekretua argitzen laguntzen du –“Basoa xuxurla ari da. Dakiena ezin du gehiago isilik atxikia. Haren murmurioa lore bat da, giroa sekretu batez lurruntzen duena”–, baina Hartz Handia ez da esnatzen jada.

Hunkigarria da testua, ikusgarriak

irudiak. Liburu poetikoegia agian haur txikiei beren kasa irakur dezaten uzteko, baina ederra ilustrazioak ikusi, gozatu eta Zuzanna Celejen detaileekin, koloreekin jolas dezaten.

Hartz Zaharraren sekretua bere baitan esperoan zuen udaberria zen, haren esperoan pasa du negua, hotza, elurra, paraje bakarti eta isilean zain egon da. Eta lore baten lurrunik udaberria iragartzen duenean, zuhaitzetan, txoritxoetan, baso guztian zehar udaberria datorrela zabaltzen denean Hartz Zaharrak lo hartzen du (betiko): “Hartz zaharra ez da esnatu. Tximeleta-olde batekin ametsetan dago”.

Album zoragarria dugu *Hartz Zaharraren sekretua* hau, ederki itzulita eta balio literario handikoa, haurrentzat izanda ere, balio handia testuan eta baita ere ilustrazio lortuetan. ●